

3. Aita Intzak irakurri du bere aita Nagusiak berari igortzen dion idazki bat, esanik Euskaltzaindiak gora jo bear luketa oraingo Agintariakgana, euskeraren alde, eliz, ikastetxe ta erietan egin bear litzakenen eskabidez. Urkijo jaunak esan du: gai ontan ta asmo beretan oraintxe dabilela Eusko-lkaskuntza ta obe litzakela Eusko-lkaskuntzaz batu eskabide ori indar aundiagoz egiteko. Baietz deritzate euskaltzainak ta orixe erabaki da.

4. Aita Intza berak aitortzen du: Bidaso-aruzko *Euskal-Biltzarak* lan bereziak darabilzkiela euskeraren alde ta orégatik zorion beroak azaldu bear zaizkiola. Baietz dio Euskaltzaindiak eta zorionak igoriko dizkio. Garai auxe aukeratzen du Euskaltzaindiak bereziz adierazteko: Euskeraren alde dabiltzan guziaz, zerbaiten sorospidea, berak al duenez, emango zaiela.

5. Lakoizketaren jaiotetxean oroitari bat jafi nai litzake. Oretarako Euskaltzaindiak dirubide bat banatu nai luke, berak *50 pesetaz* asiera emanik.

6. Kanpion jaunak bere lan eder bat irakurri du ta bigaramonean jaraitzeko gelditu da. Lanaren gaya auxe da: *El vascuence y el antiguo egipcio*.

Ta beste gai batzuek uréngo egunerako laga-ta otoiitzez amaitu batzaraldia.

---

**Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Lotazi-  
la'ren 21'an.**

Batzar ontara datozen euskaltzainak abetxek dira: Azkue, Kanpion, Landéretxe, Lakonbe, Urkijo, Intza, Altube, Eguskitza ta Intzagarai. Urgazletatik batez.

1. Kanpion jaunak jañaitu du bere lanaren irakurpena: *El vascuence y el antiguo egipcio*.

2. Euskaltzaindiaren urte buru ontako diru artu-emanen gora-berak ta datoñenerako *presupuestoa*. Arlo au ez da batere ikutu. Gipuzkoako Aldundiak zer emango duenen zai egon bear da egikizun au betetzeko ta onbear ez datoñen batzañaldirako laga da.

3. Azkue jaunak bere lan eder *Morfología Vasca* irakuri du.

4. Urkijo jaunak beñiz Landeta jaunaren idazki bat. Idazki au Landetak Eusko-lkakuntzari egin dio.

5. Napañoako Aldundiak urteroko sorospidea Euskaltzaindiari emango diola aita Intzak iragañi du.

6. Azkenik, ezkutitzak irakuri dira ta oien artean Etxegaray jaunak Marco-Gardoki-ri bidali diona ta Bergara'ko ta Zumaya'ko Lekaime-ikastetxeoak.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldi au.

---

## 1924 GAÑEN URTEA

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Ilbeltza'ren 24'an.

Bildu diran euskaltzañak abetxek dira: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Intza, Lakonbe, Altube ta Intzagaray; urgazletatik batez...

Oiturazko otoitza egin-da asi da batzañaldi au.